

BIZTANLERIA ATZERRITARRA EAEn 2009

Panoramika honekin, 23. panoramikaren edukia eguneratu dugu (2008ko abuztukoa zen eta 2008ko urtarrilaren 1eko atzerritarren erroldatzea erakusten zuen). Eguneratzeko, 2009ko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatuta zegoen biztanleria aztertu dugu, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako behin-behineko aurrerapenari erreparatuta. Azken urteotan biztanleria atzerritarak izan duen bilakaeran jarriko dugu arreta, bai eta atzerritar gehien erakarki duen eremu geografikoetan eta haien jatorri-herritasunetan ere.

1. Biztanleen udal-errolda. Ikuspegi orokorra

1. taula. EAeko biztanleria atzerritarra, sexuaren eta lurralde historikoen arabera. 2005, 2008 eta 2009

| | 2005 | | | | | 2008 | | | | | 2009 | | | | | |
|----------|-----------|-------|-------------|-------|--------------|-----------|------|-------------|------|--------------|-----------|------|-------------|------|--------------|------|
| | Guztira | | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | Guztira | | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | Guztira | | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | |
| | K | % | K | % | K | K | % | K | % | K | K | % | K | % | | |
| Espainia | 3.730.610 | 53,40 | 1.992.034 | 53,40 | 1.738.576 | 5.268.762 | 53,2 | 2.802.673 | 53,2 | 2.466.089 | 5.598.691 | 53,1 | 2.973.707 | 53,1 | 2.624.984 | 46,9 |
| EAE | 72.894 | 51,28 | 37.383 | 51,28 | 35.511 | 117.337 | 51,4 | 60.359 | 51,4 | 56.978 | 132.189 | 51,9 | 68.627 | 51,9 | 63.562 | 48,1 |
| Araba | 15.141 | 45,1 | 8.316 | 45,1 | 6.825 | 22.840 | 55,0 | 12.571 | 55,0 | 10.269 | 25.851 | 55,0 | 14.230 | 55,0 | 11.621 | 45,0 |
| Gipuzkoa | 21.536 | 48,5 | 11.092 | 48,5 | 10.444 | 35.935 | 52,1 | 18.722 | 52,1 | 17.213 | 40.619 | 52,3 | 21.234 | 52,3 | 19.385 | 47,7 |
| Bizkaia | 36.217 | 50,4 | 17.975 | 50,4 | 18.242 | 58.562 | 49,6 | 29.066 | 49,6 | 29.496 | 65.719 | 50,5 | 33.163 | 50,5 | 32.556 | 49,5 |


Iturria: EINKo datuak.

2005. eta 2009. urteen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako biztanle atzerritarren kopurua %81 handitu da. 2005ean, Euskal Autonomia Erkidegoan 72.894 etorkin bizi zen; 2009ko urtarrilaren 1ean, bertan erroldatutako atzerritarren kopuruak gora egin zuen: 132.189 etorkin bizi zen. Azken urtean, atzerritarren kopurua %12 handitu da (ikus 1. taula).

1998. eta 2009. urteen artean, bertako biztanleria murriztu egin da; 44.376 herritar gutxiago daude. Denbora-tarte berean, baina, EAeko biztanleria-kopuruak gora egin du; 72.615 lagun gehiago dago, 116.991 atzerritar etorri izanari esker. Alegia, bertako biztanleriaren galera orekatu du biztanle atzerritarren emaitza positiboak. Dena den, nabarmentzekoa da, hamar urtetan lehendabiziko aldiz, 2008an, ez duela behera egin bertako biztanleria-kopuruak; hain zuzen, 158 lagun gehiago izan da. 1999. urteaz geroztik, urtean 5.000 biztanle inguru galdu izan da.

Etorkin-kopurua gehitu izanaren erakusgarri da guztizko biztanlerian gero eta pisu handiagoa duela. 1. grafikoa eta 2.

1. grafikoa. Biztanle atzerritarren ehunekoaren bilakaera, EAEn, Espainian eta lurralde historikoetan. 1998-2009



Iturria: EINKo datuak.

taulan ikus dezakegunez, 2009an, EAEn biztanleria atzerritarra guztizko biztanleriaren %6,1 da, eta, Espainian, %12.


2. taula. Bertako biztanleen eta atzerritarren bilakaera EAEn, eta atzerritarren ehunekoak EAEn eta Espainian, 1998-2009

| | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|----------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| EAeko biztanleak | 2.098.628 | 2.100.441 | 2.098.596 | 2.101.478 | 2.108.281 | 2.112.204 | 2.115.279 | 2.124.846 | 2.133.684 | 2.141.860 | 2.157.112 | 2.171.243 |
| Bertako biztanleak | 2.083.430 | 2.083.648 | 2.077.456 | 2.074.040 | 2.069.873 | 2.062.973 | 2.056.113 | 2.051.952 | 2.048.142 | 2.043.336 | 2.039.775 | 2.039.054 |
| Biztanle atzerritarrak | 15.198 | 16.794 | 21.140 | 27.438 | 38.408 | 49.231 | 59.166 | 72.894 | 85.542 | 98.524 | 117.337 | 132.189 |
| EAeko atzerritarren % | 0,72 | 0,8 | 1,01 | 1,31 | 1,82 | 2,33 | 2,8 | 3,43 | 4,0 | 4,6 | 5,4 | 6,1 |
| Espainiako atzerritarren % | 1,6 | 1,86 | 2,28 | 3,33 | 4,73 | 6,24 | 7,02 | 8,46 | 9,2 | 9,9 | 11,4 | 12,0 |

Iturria: EINKo datuak.

2. grafikoa

Biztanleria atzerritarra EAEn, herritartasun-eremuaren arabera, 2009



Iturria: EINKo datuak.

Lurralde historikoka aztertzen badugu, ikus daiteke Bizkaian dagoela biztanle atzerritar gehien; biztanleen ia erdia, hain zuzen, 65.719 atzerritar (%49,7). Atzerritar gehien hartzen duen bigarren probintzia Gipuzkoa da (%30,7), eta Araba, hirugarrena (%19,5); 40.619 eta 25.851 atzerritar dituzte errolatuta, hurrenez hurren.

EAEko biztanle atzerritarren artean ia erdia eta erdia dira gizonezkoak eta emakumezkoak: %51,9 gizonezkoak dira, eta %48,1 emakumezkoak. Halaber, lurralde historikoka aztertzen badugu, aldakuntza txikiak ikus daitezke: Araban eta Gipuzkoan atzerritarren gehiengoa gizonezkoak dira (Arabaren %55, eta Gipuzkoan %52,3). Bizkaian, aurreko urtean gizonezko baina emakume gutxiago izan zen arren, aurtengo urtean gizonezkoak dira gehiago, gutxiatik bada ere: %50,5 gizonezkoak dira, eta %49,5 emakumezkoak. Bizkaian gertatu den aldaketa hori, batez ere, eragin du Afrikako herrialdeetatik etorkin gehiago etorri izanak, Afrikatik etorritako gehienak gizonezkoak baitira.

2. Herritartasun-taldeak

Herritartasun-taldeka aztertuz gero, nagusi dira talde latinoamerikarrak; EAEn bizi diren atzerritarren erdia inguru dira, zehazki, %45,6. Latinoamerikarrak ere gero eta gehiago dira, eta, 2003. urteaz geroztik, Latinoamerikak ekarpen handiagoa egiten du ehunekotan, baina aurreko urteetan baino pisu erlatibo txikiagoa dute: 2007. urtean %48,3 ziren, eta, 2008an, %46,7.

Europarrak 2003an baino gehiago dira, baina Europako Erkidegotik etorriek gero eta pisu handiagoa dute, 2007ko urtarilaren 1ean Europar Batasunera errumaniarrak eta bulgariarrak sartu izanaren ondorioz. Gainera, errumaniarra da EAEn kide gehien duen herritartasuna. Aldaketa horiez geroztik, barneko administrazio-berreraketa egin zen europarren artean, eta Europako Erkidegotik kanpoko europarren pisua erkidegoko europarretara transferitu zen; 2006an %11 izan ziren, eta, 2009an, %2,9 (ikus 3. taula eta 3. grafikoa).

Lurralde historikoka aztertzen baditugu (2. grafikoa), ikus daiteke, 2009ko urtarilaren 1ean, europar asko dagoela Gipuzkoan; hain zuzen, %37,6. Aldiz, Araban, atzerritarren %29,7 afrikarra da, funtsean Magrebetik etorritakoek osatua; %23,6 dira magrebtarrak, EAEn duten ehunekoaren (%13) ia


3. taula. Biztanle atzerritarren bilakaera EAEn, herritartasun-talde nagusien arabera (2003-2009)

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|-------------------|--------|--------|--------|--------|--------|---------|---------|
| EB 25 | 11.001 | 11.192 | 12.527 | 14.294 | 14.294 | 18.211 | 19.455 |
| EB 27 | 0 | 0 | 0 | 0 | 9.484 | 13.772 | 15.681 |
| EB guztira | 11.001 | 11.192 | 12.527 | 14.294 | 25.517 | 31.983 | 35.136 |
| Europa gainerakoa | 3.180 | 4.852 | 7.044 | 9.439 | 2.824 | 3.431 | 3.805 |
| Europa guztira | 14.181 | 16.044 | 19.571 | 23.733 | 28.341 | 35.414 | 38.941 |
| Magreb | 5.961 | 7.441 | 8.877 | 10.292 | 11.623 | 13.932 | 17.221 |
| Afrika gainerakoa | 3.032 | 2.961 | 4.504 | 4.673 | 5.199 | 6.371 | 7.902 |
| Afrika guztira | 8.993 | 11.152 | 13.381 | 14.965 | 16.822 | 20.303 | 25.123 |
| AEB eta Kanada | 889 | 867 | 956 | 920 | 766 | 816 | 850 |
| Latinoamerika | 22.657 | 28.327 | 35.054 | 41.293 | 47.558 | 54.865 | 60.318 |
| Amerika guztira | 23.546 | 29.104 | 36.010 | 42.213 | 48.324 | 55.681 | 61.168 |
| Txina | 1.340 | 1.558 | 2.120 | 2.530 | 2.810 | 3.282 | 3.935 |
| Asia gainerakoa | 1.064 | 1.197 | 1.560 | 1.983 | 2.119 | 2.549 | 2.900 |
| Asia guztira | 2.404 | 2.755 | 3.680 | 4.513 | 4.929 | 5.831 | 6.835 |
| Ozeania | 102 | 105 | 120 | 111 | 93 | 97 | 107 |
| Apatridak | 5 | 6 | 5 | 7 | 15 | 11 | 15 |
| Guztira | 49.231 | 59.166 | 72.767 | 85.542 | 98.525 | 117.337 | 132.189 |

Iturria: EINKo datuak.

3. grafikoa

Atzerritarren osaera EAEn, herritartasun-eremuaren arabera, 2003-2009



Iturria: EINKo datuak.

bikoitza. Bizkaian, gutxiago dira europarrak eta magrebtarrak. Lurralde historiko horretan, latinoamerikarrak dira atzerritarren erdia baino gehiago; %50,6, zehazki.

2008. urtetik 2009. urtera bitartean, nabarmentzekoa da herritartasun-talde guztien kopuruak handitu direla, oro har. Bai eta iparramerikarrak eta ozeaniarrak ere, 2003. urtetik 2009. urtera bitartean herritartasun horretako atzerritarren kopuruak behera egin zuen arren. Azken denbora-aldi horretan (2003-2008), jatorri afrikarreko atzerritarren kopurua %179,3 handitu da, asiarrena %184,2, europarrena %174,6 eta latinoamerikarrena %166,2.

3. Herritartasun nagusiak

Herritartasunen arabera aztertzen badugu, hamar herritartasun nagusien artean aurki ditzakegu: bost latinoamerikar (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Brasil eta Paraguai); Europako Erkidegoko bi (Errumania eta Portugal); afrikar bi (Maroko eta Aljeria); eta asiar bat (Txina). Ikusi 4. grafikoko eta 4. taulako datuak.

Errumaniak du herritar gehien EAEn, hain zuzen, 14.617 lagun (%11,1), eta bada aldea herritartasun horren eta bigarren herri-


4. taula. Hamar herritartasun nagusiak EAEn. 1998, 2002, 2005, 2008 eta 2009

| | 1998 | | 2002 | | 2005 | | 2008 | | 2009 | | | | | |
|-----------------|---------------|-------------|-----------------|---------------|-------------|-----------------|---------------|-------------|-----------------|----------------|-------------|-----------------|----------------|-------------|
| | K | % | K | % | K | % | K | % | K | % | | | | |
| Guztira | 15.198 | 100 | Guztira | 38.408 | 100 | Guztira | 72.894 | 100 | Guztira | 117.337 | 100 | Guztira | 132.189 | 100 |
| Portugal | 3.241 | 21,3 | Kolonbia | 6.466 | 16,8 | Kolonbia | 10.208 | 14,0 | Errumania | 12.843 | 10,9 | Errumania | 14.617 | 11,1 |
| Maroko | 1.615 | 10,6 | Portugal | 4.317 | 11,2 | Ekuador | 7.620 | 10,5 | Kolonbia | 12.159 | 10,4 | Kolonbia | 12.928 | 9,8 |
| Frantzia | 1.130 | 7,4 | Maroko | 3.742 | 9,7 | Maroko | 6.754 | 9,3 | Bolivia | 11.898 | 10,1 | Maroko | 12.573 | 9,5 |
| Alemania | 813 | 5,3 | Ekuador | 2.819 | 7,3 | Portugal | 5.307 | 7,3 | Maroko | 10.270 | 8,8 | Bolivia | 12.249 | 9,3 |
| Erresuma Batua | 787 | 5,2 | Brasil | 1.855 | 4,8 | Errumania | 4.253 | 5,8 | Portugal | 8.784 | 7,5 | Portugal | 9.432 | 7,1 |
| Kuba | 529 | 3,5 | Frantzia | 1.563 | 4,1 | Bolivia | 3.484 | 4,8 | Ekuador | 7.561 | 6,4 | Ekuador | 7.740 | 5,9 |
| AEB | 513 | 3,4 | Erresuma Batua | 1.289 | 3,4 | Brasil | 3.047 | 4,2 | Brasil | 5.125 | 4,4 | Brasil | 5.806 | 4,4 |
| Argentina | 496 | 3,3 | Txina | 1.152 | 3,0 | Argentina | 2.816 | 3,9 | Txina | 3.282 | 2,8 | Paraguai | 4.103 | 3,1 |
| Brasil | 439 | 2,9 | Kuba | 1.134 | 3,0 | Aljeria | 2.170 | 3,0 | Aljeria | 3.090 | 2,6 | Aljeria | 3.981 | 3,0 |
| Txina | 623 | 4,1 | Alemania | 1.071 | 2,8 | Txina | 2.119 | 2,9 | Paraguai | 3.011 | 2,6 | Txina | 3.935 | 3,0 |
| Nagusiak | 10.186 | 67,0 | Nagusiak | 25.408 | 66,2 | Nagusiak | 47.778 | 65,5 | Nagusiak | 78.023 | 66,5 | Nagusiak | 87.364 | 66,1 |
| Gainerakoak | 5.012 | 33,0 | Gainerakoak | 13.000 | 33,8 | Gainerakoak | 25.116 | 34,5 | Gainerakoak | 39.314 | 33,5 | Gainerakoak | 44.825 | 33,9 |

Iturria: EInko datuak.

4. grafikoa Bizkaia

EAeko hamar jatorri nagusien bilakaera. 2003-2009
(Balio absolutuak)



Iturria: EInko datuak.

tartasunaren (Kolonbia) artean. 1998. urtetik 2001. urtera bitartean, Portugalek zuen herritar gehien EAEn; 2002. urtean Kolonbiatik etorri zen atzerritar gehien, eta hala izan zen, 2007. urtera arte. 2008an, Errumania izan zen atzerritar gehien eman zuen herrialdea. 2008. eta 2009. urteen artean %13,8ko urte arteko gehikuntza izan du Errumaniako atzerritarren kopuruak. Ondoren, Kolonbia (12.928) eta Maroko (12.573) daude, atzerritarren %9,8 eta %9,5 dituztela, hurrenez hurren.

Gero eta gehiago etortzen ari direnak paraguaitarrak dira; 2002. urtean 53 lagun errolatuta izatetik 2009an 3.935 lagun izatera pasatu da. Badirudi azken urteotan boliviaren immigrazioak izan duen bilakaerari erantzuten diola paraguaitarren kasuak. Paraguaitar gehien, zehazki, %71,3, Bizkaian dago.

3.1. Herritartasun nagusiak, lurralde historikoaren arabera

Araba

Lurralde historikoak kontuan hartzen baditugu, Araban, herritartasun nagusiak marokoarra eta kolonbiarra dira: 2009an, guztizkoaren %14,4 eta %12,3, hurrenez hurren. Azken laurtekoan, %70,7 eta %75,3 gehitu dira, hurrenez hurren. Araban magrebtar asko dago; Araban bizi diren bost atzerritarretik batek baino gehiagok jatorri magrebtarra du, dela marokoarra (%14,4), dela aljeriarra (%7,8) (ikus 5. taula).

Bizkaian hainbat aldaketa izan da, batez ere azken bi urteotan. 2007. urteaz geroztik, Bolivia bihurtu da herritartasun nagusi, Bizkaiko atzerritarren artean. Bizkaia, 2005ean jatorri boliviarrereko 2.989 lagun errolatuta izatetik (%8,3) 10.130 lagun errolatuta izatera pasatu da (Bizkaiko atzerritarren %15,4). Ehunekotan, atzerritar boliviaren kopurua %238,9 gehitu da, azken lau urteotan. Boliviaren gain, Errumaniak ere nabarmen gehitu du EAEn duen herritar-kopurua; bigarren herritartasun nagusia da, 2008. urteaz geroztik. 2005ean, errumaniarrak 2.730 biztanle ziren, Bizkaiko biztanle atzerritarren %7,5; eta, 2009an 8.687 lagun dira, %13,2. Beraz, %218,2 gehitu da azken lau urteotan (ikus 6. taula).

Kolonbia hirugarren herritartasun bihurtu da Bizkaian (%10,5), eta ostean ditu Maroko (%7,5) eta Ekuador (%5,1). Ekuador da herritartasun latinoamerikarretako bat, pertsonen ekarpen absolutua murrizteaz gain, etorkinen guztizkoan pisu erlatibo gehien galdu duena; 2005ean %10,1 izatetik 2009an %5,1 izatera igaro da. Nolanahi ere, etorkin kolonbiarren eta ekuadortarren kopurua murriztu izanaren arrazoi da, halaber, herritartasun betetera direla eta horiek lortu dutela nazionalizazio gehien.

Gipuzkoa

Gipuzkoan, Portugal da herritartasun nagusia, 2006. urteaz geroztik. 2009an 4.482 biztanle atzerritar dira portugaldarrek, guztizko atzerritarren %11. Bestalde, 2005. urtean, Ekuador izan zen bigarren herritartasun nagusia, baina, 2009. urtean, laugarren tokira pasatu da (%7,8), batez ere azken bi urteetan errumaniaren kopurua gehitu izanaren ondorioz. 2005. urtetik 2009. urtera bitartean, Gipuzkoan, errumaniaren kopurua %368,6 gehitu da; hain zuzen, 2005. urtean 874 errumaniar izatetik, 2008an 4.096 errumaniar (%10,1) izatera pasatu da.

Bukatzeko, nabarmentzekoa da aldea dagoela lurralde historiko bakoitzeko herritartasunaren araberrako osaketan. Aldakuntza txikiak ikus daitezke herritartasunaren pisan. Aldeak nabarmenduz, ikusi da Araban atzerritarren artean magrebtarrak direla gehien, Gipuzkoan europarrak eta Bizkaian latinoamerikarrak (7. taula).

5. taula. Araban erroldatuta dauden atzerritarrak, herritartasun nagusien arabera. 1998, 2002, 2005 eta 2009

| | 1998 | | 2002 | | 2005 | | 2009 | | | | |
|-----------------|--------------|-------------|-----------------|--------------|-------------|-----------------|---------------|-------------|-----------------|---------------|--------------|
| | K | % | K | % | K | % | K | % | | | |
| Guztira | 2.460 | 100 | Guztira | 8.031 | 100 | Guztira | 15.141 | 100 | Guztira | 25.851 | 100,0 |
| Portugal | 451 | 18,3 | Kolonbia | 1.228 | 15,3 | Kolonbia | 2.129 | 14,1 | Maroko | 3.732 | 14,4 |
| Maroko | 372 | 15,1 | Maroko | 1.039 | 12,9 | Maroko | 2.119 | 14,0 | Kolonbia | 3.182 | 12,3 |
| Brasil | 144 | 5,9 | Portugal | 887 | 11,0 | Aljeria | 1.286 | 8,5 | Portugal | 2.173 | 8,4 |
| Erresuma Batua | 114 | 4,6 | Brasil | 676 | 8,4 | Ekuador | 1.222 | 8,1 | Aljeria | 2.028 | 7,8 |
| Alemania | 113 | 4,6 | Aljeria | 630 | 7,8 | Portugal | 1.138 | 7,5 | Errumania | 1.834 | 7,1 |
| Aljeria | 102 | 4,1 | Ekuador | 494 | 6,2 | Brasil | 789 | 5,2 | Ekuador | 1.252 | 4,8 |
| Kuba | 96 | 3,9 | Errumania | 218 | 2,7 | Errumania | 649 | 4,3 | Brasil | 1.218 | 4,7 |
| Frantzia | 90 | 3,7 | Alemania | 216 | 2,7 | Txina | 428 | 2,8 | Paraguai | 912 | 3,5 |
| Txina | 84 | 3,4 | Kuba | 187 | 2,3 | Argentina | 418 | 2,8 | Peru | 679 | 2,6 |
| Italia | 68 | 2,8 | Txina | 178 | 2,2 | Nigeria | 291 | 1,9 | Bolivia | 642 | 2,5 |
| Nagusiak | 1.634 | 66,4 | Nagusiak | 5.753 | 71,6 | Nagusiak | 10.469 | 69,1 | Nagusiak | 17.652 | 68,3 |
| Gainerakoak | 826 | 33,6 | Gainerakoak | 2.278 | 28,4 | Gainerakoak | 4.672 | 30,9 | Gainerakoak | 8.199 | 31,7 |

Iturria: EINKo datuak.

6. taula. Bizkaian erroldatuta dauden atzerritarrak, herritartasun nagusien arabera. 1998, 2002, 2005 eta 2009

| | 1998 | | 2002 | | 2005 | | 2009 | | | | |
|-----------------|--------------|-------------|-----------------|---------------|-------------|-----------------|---------------|-------------|-----------------|---------------|--------------|
| | K | % | K | % | K | % | K | % | | | |
| Guztira | 7.437 | 100 | Guztira | 18.661 | 100 | Guztira | 36.217 | 100 | Guztira | 65.719 | 100,0 |
| Portugal | 1.116 | 15,0 | Kolonbia | 4.221 | 22,6 | Kolonbia | 6.322 | 17,5 | Bolivia | 10.130 | 15,4 |
| Maroko | 655 | 8,8 | Maroko | 1.511 | 8,1 | Ekuador | 3.660 | 10,1 | Errumania | 8.687 | 13,2 |
| Frantzia | 511 | 6,9 | Ekuador | 1.417 | 7,6 | Bolivia | 2.989 | 8,3 | Kolonbia | 6.883 | 10,5 |
| Erresuma Batua | 438 | 5,9 | Portugal | 1.310 | 7,0 | Errumania | 2.730 | 7,5 | Maroko | 4.940 | 7,5 |
| Alemania | 409 | 5,5 | Brasil | 868 | 4,7 | Maroko | 2.646 | 7,3 | Ekuador | 3.323 | 5,1 |
| AEB | 347 | 4,7 | Txina | 750 | 4,0 | Portugal | 1.621 | 4,5 | Brasil | 3.024 | 4,6 |
| Kuba | 295 | 4,0 | Erresuma Batua | 607 | 3,3 | Brasil | 1.575 | 4,3 | Paraguai | 2.928 | 4,5 |
| Venezuela | 264 | 3,5 | Kuba | 554 | 3,0 | Txina | 1.361 | 3,8 | Portugal | 2.777 | 4,2 |
| Argentina | 256 | 3,4 | Frantzia | 523 | 2,8 | Argentina | 1.123 | 3,1 | Txina | 2.449 | 3,7 |
| Txina | 247 | 3,3 | Alemania | 477 | 2,6 | Senegal | 720 | 2,0 | Senegal | 1.603 | 2,4 |
| Nagusiak | 4.538 | 61,0 | Nagusiak | 12.238 | 65,6 | Nagusiak | 24.747 | 68,3 | Nagusiak | 46.744 | 71,1 |
| Gainerakoak | 2.899 | 39,0 | Gainerakoak | 6.423 | 34,4 | Gainerakoak | 11.470 | 31,7 | Gainerakoak | 18.975 | 28,9 |

Iturria: EINKo datuak.

7. taula. Gipuzkoan erroldatuta dauden atzerritarrak, herritartasun nagusien arabera. 1998, 2002, 2005 eta 2009

| | 1998 | | 2002 | | 2005 | | 2009 | | | | |
|-----------------------|--------------|--------------|-----------------|---------------|--------------|-----------------|---------------|--------------|-----------------|---------------|--------------|
| | K | % | K | % | K | % | K | % | | | |
| Guztira | 5.301 | 100,0 | Guztira | 11.716 | 100,0 | Guztira | 21.536 | 100,0 | Guztira | 40.619 | 100,0 |
| Portugal | 1.674 | 31,6 | Portugal | 2.120 | 18,1 | Ekuador | 2.738 | 12,7 | Portugal | 4.482 | 11,0 |
| Maroko | 588 | 11,1 | Maroko | 1.192 | 10,2 | Portugal | 2.548 | 11,8 | Errumania | 4.096 | 10,1 |
| Frantzia | 529 | 10,0 | Kolonbia | 1.017 | 8,7 | Maroko | 1.989 | 9,2 | Maroko | 3.901 | 9,6 |
| Alemania | 291 | 5,5 | Ekuador | 908 | 7,8 | Kolonbia | 1.757 | 8,2 | Ekuador | 3.165 | 7,8 |
| Erresuma Batua | 235 | 4,4 | Frantzia | 864 | 7,4 | Argentina | 1.275 | 5,9 | Kolonbia | 2.863 | 7,0 |
| Argentina | 179 | 3,4 | Erresuma Batua | 505 | 4,3 | Frantzia | 1.024 | 4,8 | Brasil | 1.564 | 3,9 |
| Italia | 152 | 2,9 | Argentina | 395 | 3,4 | Errumania | 874 | 4,1 | Bolivia | 1.477 | 3,6 |
| Kuba | 138 | 2,6 | Kuba | 393 | 3,4 | Brasil | 683 | 3,2 | Nikaragua | 1.470 | 3,6 |
| AEB | 121 | 2,3 | Alemania | 378 | 3,2 | Erresuma Batua | 570 | 2,6 | Argentina | 1.397 | 3,4 |
| Dominikar Errepublika | 107 | 2,0 | Brasil | 311 | 2,7 | Kuba | 562 | 2,6 | Frantzia | 1.254 | 3,1 |
| Nagusiak | 4.014 | 75,7 | Nagusiak | 8.083 | 69,0 | Nagusiak | 14.020 | 65,1 | Nagusiak | 25.669 | 63,2 |
| Gainerakoak | 1.287 | 24,3 | Gainerakoak | 3.633 | 31,0 | Gainerakoak | 7.516 | 34,9 | Gainerakoak | 14.950 | 36,8 |

Iturria: EINKo datuak.



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
 - **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75
 Fax: 94 402 35 40
 e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzaitezku:
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia